




Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo




Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

“GAZTE ETORKINAK EUSKARARA HURRERATU” EGITASMOA – 2020



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

AURKIBIDEA

I.- SARRERA / AURREKARIAK:

1.1.- ESTATISTIKAK.

1.2.- BUSTURIALDEKO INMIGRAZIO PLANA – GURE EKARPENAK.

2.- HELBURUAK

3.- AZPIEGITASMOAK ETA NOLA BURUTU

3.1.- GAZTE ETORKINEI BEGIRAKO EKINTZA PLANA

3.2.- ERREFORTZURAKO IKASTARO BEREZIAK

3.3.- KALE HEZITZAILEEN “GAZTERREN 2017” AZPIEGITASMOA

3.4.- ERAGILEAK ETA BAKOITZAREN LANAK

3.5.- BALIABIDEAK

3.6.- KRONOGRAMA


4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

5.- AURREKONTUA

- I. ERANSKINA:** Udal Eskola Kontseiluaren batzarra (2019-09-23)
- II. ERANSKINA:** Ahize-AEK /Eusliderrak 2020 (metodologia, kronograma, aurrekontu proposamena).
- III. ERANSKINA:** “GAZTERREN 2018-2019ko balorazioa eta 2019-2020rako proposamena”.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

1.- SARRERA / AURREKARIAK

Egitasmoaren lehenengo pausuak 2006rako eratzerakoan eskuetan genituen estatistikei erreparatuz, ondo argi agertzen zitzaigun gure eskualdean, Euskal Herri osoan gertatu bezala, etorkinen pilaketa azken lau/bost urteetako fenomeno zela.

Gaur egun, 1.849 dira etorkinak 2019ko erroldan (biztanleriaren %10,8) eta euren adina aztertuz gero, 0-39 urte bitartekoen portzentajea % 72,30 dela ateratzen zaigu eta horietatik honako datuak:


- 0-17 urte bitartekoena % 27,83a
- 18-39 urte bitartekoena % 55a

Beraz, eskoletara bideratzekoak heren bat eta erdiak lanean aritzeko adinekoak. Ikasteko gaitasuna oso-osoan mantentzen diren adin-tarteak izanik, hizkuntza berri batez jabetzeko duten trebetasunari eutsi behar diogula uste izan dugu egitasmo honi ekiterakoan. Hargatik, etorkin helduei dagokienean euskara ikasteko motibazioa landu behar dugu eta euren pertzeptzioa lantzea, euskara beharrezko (lanerako, integratzeko, jolasteko, lagunak egiteko) dutela konturazteko. Atal honetan txertatuta ditugu Gazte etorkinei begirako Ekintza Plana (GuGazte) eta Gazterren egitasmoa.


Ikasle etorkinak direla-eta, ez dugu esango bidea errazagoa denik, baina gure udalerrian D eredua nagusi dugun irakaskuntzan murgilduta, euskararako bidea berezkoa izan daitekeela esaten ausartzen gara. Dena dela, horretarako baliabide falta nabaria dute zentroetan eta ikasle etorkinei irakaskuntzan eta gizartean integratzeko laguntza eskaini beharrean aurkitu izan gara. Horretarako, Udal Eskola Kontseiluarekin eta Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearekin elkarlanean, abian jarri ziren 2006an egitasmo honi lotutako jarduera berezi batzuk. Irakaskuntzari begirako atal honetan dihardugu lantzen errefortzuko ikastaroena iraungo urte askotan eta 2012an aintzat hartutako beste bati ekin zitzaion 2014an ere: Eusliderrak egitasmoa (zentro bateko DBH-ko etapa osoan eragiteko hizkuntza ohiturak eta aurreiritziak lantzeko esperientzia pilotoa).

Eusliderrak proiektua dela-eta esan behar dugu bi urteko ibilbidea egin zuela Mertzede ikastetxeak (DBH 3. Maila) eta berak hartuko zuela egitasmoaren garapenerako ardura, AHIZEn aholkularitzapean. Bestalde, 2016an Eusliderrak metodologia beste esparru batean erabili zen, kirolean hain zuzen (Gernika Futbol Taldeko gaztetxoentzako taldeetan) emaitza oso onak izanik.

Metodologia horri eutsiz, 2017-2018 eta 2018-2019 ikasturteetan berriro jo genuen irakaskuntzara eta bi institutuetan (Gernika Institutua eta Barrutialde Institutua) garatzea adostu genuen zentro biek; 2019-2020 ikasturtean ere irakaskuntzan jarraitzeko asmoa daukagu, DBHko 4. mailan institutu bietan jarraituz eta aurreko ikasturteko "eusliderrak" aktibatuz.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

1.1.- ESTATISTIKAK

IKASLEGO ATZERRITARRA BUSTURIALDEAN

IKASTETXEAK	IKASLEGOA 2013/2014	ETORKINAK 2013/2014	IKASLEGOA 2014/2015	ETORKINAK 2014/2015	IKASLEGOA 2015/2016	ETORKINAK 2015/2016	IKASLEGOA 2016/2017	ETORKINAK 2016/2017	IKASLEGOA 2017/2018	ETORKINAK 2017/2018
CEP ALLENDE	745	74 (9,9%)	751	51 (6,7%)	780	62 (7,9%)	790	59 (7,4%)	805	62 (7,7%)
CEP BARRUTIA	304	12 (3,9%)	295	17 (5,7%)	277	14 (5%)	287	5 (1,7%)	289	10 (3,4%)
IES BARRUTIALDE	270	8 (2,9%)	279	7 (2,5%)	281	6 (2,1%)	295	8 (2,7%)	309	14 (4,5%)
IES GERNIKA	788	20 (2,5%)	781	25 (3,2%)	763	37 (4,8%)	786	33 (4,1%)	792	27 (3,4%)
LA MERCED	288	111(38,5%)	294	140 (47,6%)	302	133 (44%)	298	137 (45,9%)	300	158 (52,6%)
SAN FIDEL	740	60 (8,1%)	757	60 (7,9%)	756	66 (8,7%)	789	68 (8,6%)	777	62 (7,9%)
SEBER ALTUBE	692	18 (2,6%)	709	18 (2,5%)	722	15 (2%)	732	21 (2,8%)	729	13 (1,7%)
MONTORRE	46	6 (13%)	48	4 (8,3%)	41	2 (4,8%)	40	3 (7,5%)	42	7 (16,6%)
MUNDAKA	146	4 (2,7%)	154	5 (3,2%)	151	3 (1,9%)	152	1 (0,65%)	158	1 (0,63%)
UCELAY (Busturia)	123	1 (0,8%)	112	2 (1,7%)	105	1 (0,9%)	111	1 (0,9%)	117	2 (1,7%)
URRETXINDORRA	98	4 (4%)	103	3 (2,9%)	101	2 (1,9%)	99	2 (2%)	107	9 (8,4%)
PUBLIKOAK	2.520	129 (5,1%)	2.523	114 (4,5%)	2.499	127 (5%)	2.560	112 (4,3%)	2.619	132 (5%)
KONTZERTATUAK	1.720	189 (10,9%)	1.760	218 (12,3%)	1.780	214 (12%)	1.819	226 (12,4%)	1.806	233 (12,9%)
OROKORRA/TOTAL	4.240	318 (7,5%)	4.283	332 (7,7%)	4.279	341 (7,8%)	4.379	338 (7,7%)	4.425	365 (8,2%)


63,8% ZENTRO KONTZERTATUETAN ETA %36,2 PUBLIKOETAN

Gernika-Lumoko Hasierako Lanbide Prestakuntzako Ikastetxea (Ile-apainketa): 30 ikasle (%33 atzerritarrek)

Fuente/Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Bizkaia)/ Departamento de Educación, Universidades e Investigación (Bizkaia).



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003


Ikasle etorkinak etapaka Busturialdean

IKASLEGO ATZERRITARRA MAILAREN ARABERA/ ALUMNADO EXTRANJERO POR ETAPAS									
	2010/2011	2011/2012	2012/2013	2013/2014	2014/2015	2015/2016	2016/2017	2017/2018	ALDAKETAK
HAUR HEZKUNTZA	74	115	104	101	106	108	116	119	+3
LEHEN HEZKUNTZA	128	156	161	143	135	132	120	150	+30
DBH/ DERRIGORREZKO BIG. HEZK.	67	76	63	66	84	89	87	79	-8
BATXILERGOA	3	3	5	5	4	8	12	12	-
LANBIDE/FP (Erdi maila)		1	3	2	3	4	2	2	2
LANBIDE/FP (Goiko maila)	5	4	2	1	0	0	1	3	+2
OROKORRAK	278	355	338	318	332	341	338	365	+27


Gernika-Lumoko zentroetan 346 ikasle etorkin (matrikula guztien %9).

Gure eskualdeari eta udalerriari dagokionean, hurrengoak azpimarratu behar:

- **Berezitasuna.-** Beste udalerri batzuetan sare publikoak jasaten du ikasle etorkinen pilaketa eta Gernika-Lumon, oster, zentro kontzertatueta (%63,8) dago pilaketa. Egoera hau gure eskualdeko berezitasuna da, Euskal Autonomi Erkidegoko datuen arabera ikasle atzerritarren %75 sare publikoan baitago matrikulatuta. Gure eskualdean egoera orekatzeko joera apurtu egin da eta berriro doa gora atzerritarrak zentro kontzertatueta matrikulatzeko jokabidea (2008/2009 ikasturtean ikasle atzerritarrak %66 zentro kontzertatueta; 2017-2018 ikasturtean berriro %63,8).
- **Arriskua.-** Mertzede ikastetxean aurreko urteetan gertaturiko pilaketa harritzekoa izanda, Udal Eskola Kontseiluak orain dela urte batzuk hausnarketa egin zuen eta, etorkinen integrazioarako noraino kaltegarri izan zitekeen kontuan izanda, halako getolakoak



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

ekiditzeko etorkinak matrikulatzeko orduan zentro guztien arteko oreka bilatu behar zela ebatzi zen. Horretarako, konpromisoa hartu zuten guztiek eta matrikulazioaren bilakaera kontrolatzeko urtean bi batzar egitea ere, Berritzeguneko teknikariak barru.

- **Indargunea.-** Atzerritarrak matrikulatzen diren erduei erreparatuz, guztiak daude matrikulatuta D ereduiko ikastetxeetan, Barrutialden dauden 37 ikasleen kasua salbu (B ereduakoak dira eta ez dakigu horietatik zenbat diren atzerritarrak). Mertzede ikastetxeak maila guztietara hedatu du D eredu urte askotako prozesua ondoren.
- 2011n 355 matrikula ziren atzerritarrenak eta urte batzuetan **moteltzen hasi zen kopuru hori berreskuratu egin da** 2017-2018 ikasturtean (365) eta gaintitu zeozer.

ATZERRIKO BIZTANLERIA BUSTURIALDEKO MANKOMUNITATEAN (2019)

1. Atzerriko biztanleriaren bilakaera, 2018-2019.

2018ko URTARRILAREN 1ean				2019ko URTARRILAREN 1ean			
	Biztanleria orokorra	Atzerritarrak	%	Biztanleria orokorra	Atzerritarrak	%	Aldaketa
AJANGIZ *				474	10	2,1	
ARRATZU	419	16	3,8	419	17	4	+1
BUSTURIA	1.642	52	3,1	1.612	54	3,3	+2
EA	846	42	4,9	836	52	6,2	+10
ELANTXOBE	348	5	1,4	349	11	3,1	+6
EREÑO*	247	13	5,2	259	13	5	-
ERRIGOITI	493	15	3	485	17	3,5	+2
FORUA	932	45	4,8	916	60	6,5	+15
ARTEAGA	843	42	4,9	838	48	5,7	+6
GERNIKA	17.032	1.733	10,1	17.056	1.849	10,8	+116
IBARRANGELU	645	14	2,1	632	22	3,4	+8
KORTEZUBI	440	17	3,8	441	24	5,4	+7
MENDATA	385	16	4,1	383	25	6,5	+9
MORGA	424	17	4	411	14	3,4	-3
MUNDAKA	1.849	56	3	1.860	68	3,6	+12
MURUETA	312	7	2,2	317	9	2,8	+2
MUXIKA	1.465	79	5,3	1.475	98	6,6	+19
NABARNIZ	256	9	3,5	254	10	3,9	+1
SUKARRIETA	358	15	4,1	336	9	2,6	-6
GUZTIRA	28.936	2.193	7,5	29.353	2.410	8,2	+217

Iturria: biztanleen udal-errola. *Ajangiz sartu zen Mankomunitatean 2019ko urtarrilean.

- 1) Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten 19 udalerrietan **beste herrialde batzuetako 2.410 pertsona daude errolatuta, biztanle guztien %8,2 alegia. Espainako nazionalitatea jaso duten atzerritarrak kontuan hartzen badira portzentai handiago dugu (%8,9); Euskal Autonomia Erkidegoan (%9,4) eta Estatuan (%13,6) dagoenarekin konpartuz gero baxuagoa da.**
- 2) **2018tik 2019ra bitartean errolatuta dauden atzerritarren kopurua handitu da, 2.193 lagun izatetik 2.410 izatera, hori da 217 lagun gehiago.**
- 3) **2018an errolatu berrien %66 beste lurraldetatik etorritakoa da (Errumaniatik gehienbat), %27 inguruko herrietatik (Bilbo eta Bermeo bereziki) eta %7 beste erkidegoetatik.**
- 4) Kontuan hartu behar da Espainiako nazionalitatea gero eta etorkin gehiagok jasotzen dutela, batez ere Latinoamerikatik iritsitakoak, eta, horrenbestez, nahiz eta eskualdean bizi izan errolatan ez direla atzerritar gisa ageri. **2018an 28 atzerritarrek jaso zuten nazionalitatea. Beraz, 2.410 lagun horiei nazionalitatea jaso dutenak gehitu behar dira: 231 lagun 2013tik.**

Nazionalitateak ugariak: **boliviarra (39), argentinarra (20), ekuadortarra (19), kolonbiarra (16), venezuelarra (15), brasildarra (14), sahararra (13) eta marokiarra (13).**

- 5) Atzerriko biztanleriaren **%44,6** Europako Batasunetik kanpoko herrialdeetatik etorritakoa da (**1.073** lagun) eta Europako Batasunetik etorritako **1.337** biztanleetatik **%87,2** errumaniarrak dira. Nazionalitateak ugariak: **errumaniarra (1.166** lagun), **marokiarra (115), brasildarra (88), moldaviarra (79), argentinarra (73), nikaraguarra (66), txinatarra (62) eta ukrainarra (56).**
 - 6) Gehien handitu diren taldeak: **errumaniarra (34** lagun gehiago), **nikaraguarra (25** gehiago), **brasildarra (23** gehiago) eta **marokiarra (16** gehiago).
 - 7) **Emakumeak** eskualdeko etorkin guztien **%50,3** dira.
 - 8) Atzerriko biztanleen **%47 18-39** urte bitartekoa da eta **%20** adin txikikoa.
 - 9) Mankomunitatean bizi diren atzerriarren **%76,7** Gernika-Lumon biltzen dira (**1.849** lagun). Udalari honen biztanleriaren **%10,8** beste herrialde batzuetatik dator. **Espainako nazionalitatea jaso duten atzerriarrek kontuan hartzen badira portzentaia %11,7koa da.** Azken hamabi hilabeteotan, errolatutako etorkinen kopurua dezent handitu da (**116** lagun gehiago). **Gehien handitu diren** komunitateak: **errumaniarra (28** lagun gehiago), **brasildarra (15** gehiago) eta **nikaraguarra (11** gehiago).
-

1.2.- INMIGRAZIO PLANAREKIKO UZTARKETA

2005ean eratu zen I. Inmigratio Plana, 2008an bigarrena eta 2013-2016 eperako hirugarrena. Hiruretan hartu zuen parte Euskara Zerbitzuak eztabaidarako foroetan eta bere ekarpenak ere egin zituen; ekarpen horiek onartuak edo ez izatea baino gure helburu nagusia EBPNrekiko uztarketa eta loturak sendotzea izan da beti eta uste dugu lortu dugula.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuetarako Mankomunitateak eratu Inmigratio Planean aintzat hartutako ekintzez gain, uztarketa horren frogagarri dira hurrengo koordinazio eta elkarlan guneak:

- Inmigratio teknikariaren parte hartzea Udal Eskola Kontseiluan eta AHIZEk garatzen duen gazte etorkinei begirako Ekintza Planaren jarraipenean.
- Mankomunitateko Gizarte Hezitzaileen Eskuartze Taldearen jarduna AHIZEren Ekintza Planarekin duen lotura eta alde bien arteko elkarlana.
- Mankomunitateak urtero gauzatzen duen Gazterren egitasmoa, 9-15 urte bitarteko gaztetxoei begirakoa (eskolan eta familia giroan arazoak dituzten gaztetxoei zuzendua eta parte hartzen dutenen %50 gazte etorkinak dira).

2. HELBURUAK

Indarrean dagoen ESEPeren arabera moldatutako 2018ko Kudeaketa Planean aintzat hartutako ekintza eta azpiekintzei jarraiki eratu eta gauzatuko da honako egitasmoa:

Helburu estrategikoa: Euskararen transmisioa / ondorengoetaratzea.
Esparrua:

2. Irakaskuntza

2.6. Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea

2.6.1. Kanpotik etorritako nerabeengan arreta berezia jartzea eta haietzako programa bereziak garatzea

- 2.6.1.1.- DBHko ikasle etorkinei ikastaro bereziak eskaini, euskara ikasi eta sendotzeko

Helburu estrategikoa: Euskararen erabilera

7. Aisia eta kirola

7.7. Etorkinen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko euskarazko aisialdi programa egokiak antolatzea (Toki erakundeak)

7.7.1. Aisialdi-programetan bertakoen eta etorri berrien arteko elkarguneak sortzea

- 7.7.1.1.- Etorri berrien integrazioa bideratutako aisialdi programak bideratu (gazte etorkinak euskarara urreratzeko egitasmoa)

3.- AZPIEGITASMOAK ETA NOLA BURUTU

Premiazko egoerak bultzatuta, gazte etorkinen esparruan eragiteko 2006an abian jarri genuen ikasle etorkinen errefortzurako egitasmoa, presaka behar bada, euskaltegiekin eta irakaskuntza zentroekin elkarlanean. Gero etorri zen Gizarte Zerbitzuetarako Mankomunitateko Kale Hezitzaileekin ekiteko gogoia eta aukera ezin hobeia: Gazterren egitasmoa.

2008an, gauzak apalago eta patxadaz hartzearen, hurrengo urteetarako ekinbideak argitu beharrean aurkitu izan ginenez, beste azpiegitasmo bat gauzatzeari ekin genion: Gazte etorkinei buruzko diagnostikoa burutzea 2009an. I. Ekintza Plana garatu zen 2010ean eta bederatzigarrenari ekin zaio 2018an.

2011n aurreikusi gabeko egitasmo bati eutsi genion, sarrera-idatzian aipatua: Eusliderrak egitasmoa (zentro bateko DBH-ko etapa osoan eragiteko hizkuntza ohiturak eta aurreiritziak lantzeko esperientzia pilotoa). Eusliderrak proiektua dela-eta esan behar dugu hiru urteko ibilbidea ondoren, Mertzede ikastetxeak berak hartu zuela egitasmoaren garapenerako ardura, AHIZEren aholkularitzapean eta trebatze ikastaro bat eskaini zitzaizela irakasleei horretarako. Honakoa “GUGAZTE” proiektuaren adar bihurtu genuen 2015ean.

2016an baina, Mertzede ikastetxeak bidea bere kabuz eta AHIZEren aholkularitzapean egiteko gaitasuna zuela ikusirik, Eusliderrak metodologiarekin beste esparru bat landu zen: Kirol arloa, Gernika Futbol Taldeko gaztetxoek bi talde; 2017rako irakaskuntzara bueltatzea pentsatu eta halaxe burutu genuen institutu bietan (Gernika institutua eta Barrutialde Institutua) DBH 4. Mailako ikasleekin. Esperientzia horri eutsi egin zaio 2018an eta errepikatu egingo da 2019an.

3.1.- GAZTE ETORKINEI BEGIRAKO “EKINTZA PLANA” eta “EUSLIDERRAK”

Abian ditugun azpiegitasmoek hobeto ekiteko eta ekintza-esparru berrietara jotzeko, hau da, esparru formalean ez ezik esparru ez-formalerako tratamendua zehaztearren, gazte etorkinen munduari buruz 2008an egindako diagnostikoa oinarri, Ekintza Plan bat garatzen da urtero. Hamabi urtetik hogeita lau urtera arteko gazte etorkinen unibertsoa langai, 3 azpitaldetan banatuta:

- A 12tik 15era artekoak
- B 16tik 19ra artekoak
- C 20tik 24ra artekoak

Honakoa, AHIZE-AEK hizkuntza aholkularitzarekin Udalak 2009an sinatu zuen hitzarmenaren jarraipena da eta 2017rako berriztatu egin da hitzarmena Ekintza Planaren garapena helburu (ikus 1. eranskina)

Bestalde, Euskararen erabilpena areagotzea dela-eta, AHIZE enpresak proposamen bat aurkeztu zion Gernika-Lumoko Udalari 2011ko ekainean, “Eusliderrak” delako egitasmoa. Berau, Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateak egindako ikerketetan oinarritua dugu, giza multzo berezietan aplikatu eta hizkuntza ohituretan eragiteko metodologia erabiliz.

Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzuak AHIZE enpresarekin hausnarketa egin ondoren, egokitzen jo zuen Berrizko Institutuan garatutako esperientzia pilotuan oinarritu eta Gernika-Lumon ere DBH mailan aplikatzea, Mertzede ikastetxeko DBH-ko 3. mailan hain zuzen. Hautaketaren arrazoiak: ikastetxe txikia, gela oso bat lantzeko aukera eta maila bakoitzeko gela bakarra, B eredukoa eta ikasle etorkinen portzentajea ia %50koa zuena. Aurrekoak kontuan hartuta, egitasmoak eraginkortasun handia izan

zezakeen erakunde osoan. Gainera, Mertzede ikastetxeko arduradunekin batzartu eta atseginez eutsi zioten aukera horri. Burutu zen, bada, lehenengo esperientzia hori eta hurrengo urteetan jarraipena izan du (2014an III. zikloa garatu zen).

Eusliderrak proiektua dela-eta esan behar dugu hiru urteko ibilbidea ondoren Mertzede ikastetxeak berak hartu zuela egitasmoaren garapenerako ardura, AHIZEren aholkularitzapean.

Hori horrela, GU-GAZTE egitasmoa eta EUSLIDERRAK egitasmoak uztartzea erabaki genuen 2016an, lehenengoa udalerrri mailan burutzekoa eta, bigarrena, gazte multzo berezi bati zuzendua (2016an Gernika Futbol Klubeko gaztetxoek bi taldetan erabili izan zen metodologia hori). Bietan xede taldea 12-18 urte bitarteko gazteak izan ziren, gaztetxo etorkinen integrazioa modu berezian lantzea helburu.

Mertzede ikastetxean egin genuen bi urteko esperientzian oinarrituta, 2017tik hona bi institutueta burutu dugun “Eusliderrak” egitasmoa 2020an errepikatzea egokitzen jo dugu, aurreko ikasturteetako “eusliderrak” ere aktibatu ahal izateko.

3.2.- ERREFORTZURAKO IKASTARO BEREZIAK

2007-2008 ikasturterako, Udal Eskola Kontseiluak 2007ko irailaren 20an egindako bileran hausnartutakoa oinarri hartu zen erabakia ekarri behar gogora: “DBH mailako gazte etorkinek euskara landu dezaten, errefortzua eskaintzea ikastaro bereziak eratuz”.

Ordutik hona, errepikatu egin da esperientzia urtero eta Udal Eskola Kontseiluak egiten dituen batzarretan egiten da iragan ikasturteko hausnarketa eta berrirako egokipena. Ikusi I. eranskina (Udal Eskola Kontseiluaren 2019ko irailaren 21eko akta).

Beraz, 2007an finkaturiko ildoari jarraiki, hurrengo ikasturteetan ere bi ikastaro antolatu izan dira, bakoitzean bi talde izanik, oinarritzkoa edo zero maila (60 ordu) eta hasiera maila (60 ordu); udakoari utzi egin zitzaion aurrekontu murrizketa eta asistentzia datu eskasak bitarteko. Aurtengoan talde bakarra sortu da zero mailakoa, gutxieneko kopurua ez delako bete hobekuntza taldea osatzeko.

3.3.- KALE HEZITZAILEEN “GAZTERREN 2019-2020”

Derrigorrezko jo genuen bere sasoian Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearekiko zubiak eraiki eta elkarlanari eustea, eurak direlako etorkinekin lehenengo harremana dutenak eta eskaintzen zaizkien laguntza guztien arduradunak.

Beraz, kale hezitzaileen zerbitzuarekin elkarlanari ekitea adostu dugu, euren lanetan laguntzeko eta euskararen normalizazioari begira gure aholkularitza eta baliabideak eskaintzeko. Lan esparru interesgarria guretzat, tratatzen dituzten gazteak familia arazoak dituztenak izanik, eurretako erdiak etorkinak direlako. Integrazioa lantzeko hizkuntzarena lantzea behar-beharrezko jo dugu eta horregatik bideratu da diru laguntza berezi bat zerbitzu horrekin elkarlanean eratu den “Gazterren 2016-2017” egitasmoa aurrera ateratzeko (ikus II. Eranskinean horri buruzko balantzea).

“Gazterren 2019” azpiegitasmoaren xede taldea, 9-15 urte bitarteko gaztetxoei begirakoa izango da, gizarteratzeko arazoak (bai pertsonalak zein familiakoak bitarteko) dituztenentzat. Guztira 25 bat gaztek hartzen du parte eta horietatik erdiak, gutxi gora-behera, etorkinak izango dira.

Atal honetan aipamen berezia egin beharra dugu, egitasmo orokor honen baitan dauden azpi egitasmoen artean hezurmamitzen doan koordinazioa dela eta; Mankomunitateko Gizarte Hezitzaileen Eskuartze Taldearen jarduna AHIZERen Ekintza Planarekin duen lotura eta alde bien arteko elkarlana areagotzea dugu helburu 2020an.

3.4.- ERAGILEAK ETA BAKOITZAREN LANAK

- Euskara Zerbitzua (ardura orokorrak):

- Egitasmoa eratu eta garapena koordinatzeko ardura nagusia.
- Batzarretarako deialdiak egin eta idazkaritza lanak bete.
- Plan Estrategiko berria oinarritutako 2020ko Kudeaketa Planean diru-baliabideak finkatu egitasmoa garatu ahal izateko.
- Azpi egitasmoen garapenari jarraipena egiteko ardura nagusia.

- Udal Eskola Kontseilua (errefortzurako ikastaro bereziak):

- Partaide udalerriko irakaskuntza zentro guztiak.
- Inplikaturiko gainerako eragile guztien bilgunea.
- Bertan erabaki dira egitasmoa garatzeko orientabide nagusiak.
- Jarraipenaren eta emaitzen berri emateko bilgunea.
- Gernika Institutua eta Barrutialde Institutuaren inplikazio berezia, Eusliderrak egitasmoa zentro horietan garatzeko.

- Berritzegunea (errefortzurako ikastaro bereziak):

- Udal Eskola Kontseiluko partaide berezia.
- Matrikulazioaren gora-beheretako arduraduna, egitasmoarekin zerikusia duen neurrian.
- Bere ardurapean dagoen ikasle etorkinen inguruko “Mintegia” izango da egitasmoari buruzko metodologiaren oinarriak finkatzeko bilgunea (euskaltegiak barru).

- **AEK Euskaltegia (errefortzurako ikastaro bereziak):**
 - Euskara Zerbitzuarekin estu-estu ekitea diote egitasmoaren zehaztasunak lantzeko.
 - Parte hartzea Berritzeguneko Mintegian metodologiaren inguruko zalantzak argitzeko.
 - Euren ardura da ikasle etorkinei eskaini zaizkien ikastaroetako ekintza alternatiboak eta programazioaren zehaztapenak egitea, Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean.
 - Programazioa behin finkatuz gero, Udal Eskola Kontseiluan aurkeztea, behin-betiko onarpena izatearren.
- **AHIZE-AEK hizkuntza aholkularitza (Etorkin gazteak euskal mundura erakartzeko “Eusliderrak”-2020):**
 - Udalarekin 2009an sinatutako hitzarmena bitarteko, 2020koa egokituko da (I. eranskina).
 - AHIZE-ko teknikaria arduratuko azpiegitasmo horren koordinazio eta garapenaz.
- **Gizarte Zerbitzuetako mankomunitatea (Etorri berri gazteak euskal mundura erakartzeko Ekintza Plana / Gazterren 2019-2020):**
 - Kale hezitzaileen zerbitzua bitarteko, etorkinekin aisialdia euskaraz lantzearen egitasmoa burutzeko egitasmoaren ardura izatea.
 - Inmigratio Teknikariaren inplikazioa (Udal Eskola Kontseiluan eta Jarraipen Batzordean)

3.5.- BALIABIDEAK

- **Giza baliabideak:**
 - Euskara Zerbitzuko lanak HNT Teknikariak beteko ditu.
 - Berritzegunearen aldetik, matrikulazioaren jarraipenerako ardura duen Teknikaria eta Euskara Teknikaria (Berritzeguneak ikasle etorkinen ingurukoa aztertzeke daukan mintegia berak zuzenduko du).
 - Gernika Institutua eta Barrutialde Institutuko DBH 4. Mailako tutoreak, Eusliderrak egitasmoa garatzeko.

- AEK Euskaltegiko zuzendariak (1), egitasmoa eratu eta jarraipenerako ardura izango du, eta irakasleak/dinamizatzaileak (2), programatutakoa garatzeko arduradunak.
- Gizarte zerbitzuetako mankomunitatekoak: Inmigratio Teknikaria eta 2 kale hezitzaile.
- AHIZE-AEK-k garatuko dituenak:
 - Ekintza plana koordinatu eta garatzeko teknikaria (astean 8 orduz arituko da). Koordinazio bilerak.
 - Ekintza planean aintzat hartuko da “Eusliderrak” proiektuaren garapenerako aholkularitza (bi hilabeteko iraupena): garapenaz arduratuko den teknikaria eta AHIZE aholkularitzako teknikaria (laguntza teknikoa).

- **Diru eta material baliabideak, Euskara Zerbitzuarenak:**

- 2020ko Kudeaketa Planean aurreikusitako partida bereziak egitasmoa garatzeko (Eusliderrak, errefortzurako ikastaroak, Gazterren egitasmoa).
- Materialak eta lokalak lortzeko gestioak egiteko ardura izango du.

3.6.- KRONOGRAMA

Azpiegitasmoak	Urtean zeharreko garapena										
Ikastaro bereziak 2018-2019	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	IRAI	URR	AZA	ABEN
Batzarrak Esk. Konts. Eta euskaltegiak (jarraipena)											
Metodologia eta programazioa landu (Euskalt. / Berritzegunea)											
Ikastaldeak eratu											
Ikastaroak eman											
Gazterren 2019-2020	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	IRAI	URR	AZA	ABEN
Kale hezitzaileen taldeak dinamizatzea (asteroko ekintzak eta hamabosterik beingo irteera)											
Inmigrazio Plana eta Euskara Planak / uztarketa eta koordinaz.											
Matrikulazioaren jarraipena											
Eusliderrak 2019-2020	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	IRAI	URR	AZA	ABEN
Koord / Antol / Hausn / Eusliderrak											
Eusliderrak / Tailerrak											
Eusliderrak / ekintza soziala											
Eusliderrak / Balorazioa											

4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Ikastaroen azpiegitasmorako xede taldea 80 ikaslekoa da, DBHn matrikulatuta dauden ikasle etorkinak eta emaitzak baloratzeko adierazle nagusiak:

- Ikastaroetako partaide kopurua.
- Helburua lortu dutenen portzentajea.

“Gazterren 2019-2020” azpiegitasmoarekin lantzen da 9-15 urte bitarteko gaztetxoena (tarte horretan sartzen diren gazte etorkinak 100 dira gutxi gora-behera, baina programa hori nola arazoak dituzten fmailietako gaztetxoei begirako den, jo dezagun %20 bat dela programa horretan koka daitekeena, hau da, 20 gaztetxo). Beraz, xede taldearen kopururako estimazio bat egin beharrean gaude, aldeaz aurreik jakitea ezinezkoa izanik. Emaitzak neurtzeko adierazleak:

- Partaide kopurua.
- Lantaldeetan izandako baja kopurua.
- Lantaldetik kanpoan geratu direnak, gizarteratzeko beste bide bat aurkitu dutelako.

Eusliderrak / 2019-2020 egitasmoarekin loturikoa; 2016an futbol elkarteko gaztetxoaren taldeetan erabili izan zen metodologia, 2017an, 2018an eta 2019an irakaskuntzara bueltatu eta institutu bietan landu izan da. Xede taldea: DBH 3. mailako 143 ikasle eta DBH 4. Mailako 20 ikasle. Adierazlea: hasierako neurketa eta amaierako neurketaren arteko aldea.

5.- AURREKONTUA

KONTZEPTUAK	KOPURUAK
Errefortzurako ikastaro bereziak DBHko ikasle etorkinei	3.000
“Gazterren 2020” azpi-egitasmoa, kale hezitzaileen zerbitzuak (dinamizazioa –bi begirale- eta ekintzak)	1.300
DBHko ikasleei begirako Eusliderrak 2019-2020 (Ahize-AEK)	4.220
GUZTIRA	8.520

Gernika-Lumon, 2020ko urtarrian.

Iñigo Magunagoikoetxea Agirre
Euskara Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizk. Normalizaziorako Teknikaria

I. ERANSKINA

UDAL ESKOLA KONTSEILUAREN BATZORDE IRAKUNKORRAK 2019ko IRAILAREN 23an IZANDAKO BATZARRARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

- Iñaki Gorroño jauna (Hezkuntza Zinegotzia)
- Iñigo Magunagoikoetxea jauna (Euskara Zinegotzia)
- Iratxe Garmendia andrea (Gernikako AEK)
- Josu Erkiaga jauna ((Udal euskaltegia)
- Blanca Heriz andrea (Allende Salazar ikastetxea)
- Itxaso Garteizurrekoa andrea (San Fidel Ikastola)
- Josu Ojinaga jauna (Seber Altube Ikastola)
- Genma Astigarraga andrea (Barrutia Ikastetxea)
- Goizalde Gezuraga andrea (Barrutialde Institutua)
- Maribi Galarza andrea (Gernika Institutua)
- Anabel Gerrikagoitia andrea (Mertzede ikastetxea)
- Emilio Linaza jauna (HHI-EPA)

Idazkaria: Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria (Bittor Zarrabeitia)

Hasiera ordua: 9,30

Amaiera ordua: 11,00.

1.- 2018-2019 IKASTURTEAN IKASLE ETORKINEI ESKAINITAKO EUSKARAZKO ERREFORTZUAREN EMAITZAK AZTERTU ETA 2019-2020 IKASTURTERAKO ESKAINTZA ZEHAZTEA.
--

Iratxe Garmendia Gernikako AEKko ordezkariak, txostena banatu du batzarkideen artean eta 2018-2019 ikasturteko taldeen balorazio orokorra egin du:

- Hasiera mailan 9 ikasle zerrendan: bi agertu ez, beste 2 beranduago sartu ziren. Helburua bi ikaslek bete dute.
- Hobekuntza mailan 5 ikasle: hiruk oso ondo bete dute helburua.
- Asistentziarena arazoa izaten da eta bajak ere izaten dira, lan arazoengatik familia herriz aldatu egiten delako.

Josu Ojinaga Seber Altubeko ordezkariak adierazi du ez ote den komeni errefortzurako eskaintza hori eskla orduetan ematea.

Goizalde Gezuraga Barrutialde Institutuko ordezkariak uste du oso zaila litzatekeela eskola orduetarako koordinatzea, bakoitzak duen ordutegia eta programazioa martxan delako honez gero. Gainera, ordu asko galduko lirateke beste zentroetatik ikastaroa eskainiko den zentrorako joan-etorrietan.

Iñigo Magunagoikoetxea Euskara Ziengotziak aipatzen du berak eredu gisa jarriko lukeela zenbati ikastetxetan garatzen den HAUSPOA programarena kasu honetan aplikatzeko. Azkenean gurasoen inplikazioa lortu behar da eta parte hartzea borondatezkoa izatea baino “beharrezko” bihurtzea.

Bestalde, azken urteetan izan den partaide kopuruaren beherakada nabarmena azaldu da eta gutxieneko partaide kopurua finkatu beharra proposatu da.

Erabakia:

1).- Orain arteko eskemari eutsiko zaio (bi talde, A1 hasiera maila eta B1 hobekuntza maila) eta taldeak sortzeko gutxieneko kopurua finkatuko da: 8 ikasle. Bestalde, behar-beharrezko ikusten da zentroetan gehiago lantzea gurasoen inplikazioa ikastaroarekiko (gurasoen eta euskara ikasgaiko edota ikasle hauen tutoreen arteko komunikazioa...).

2).- Zentroetako zerrendak jasotzeko epe muga: URRIAK 21. Ikasle bakoitzaren fitxa:

- Izen-abizenak.
- Jatorria eta udalerrira noiz etorria.
- Ikasketa maila eta euskara maila (“0” edo “hobekuntza”)
- Kontakturako eta jarraipenerako telefono zenbaki bat.

3).- Egun bi astean, aurkezpen egunean finkatuko direnak. Ordutegia: arratsaldeko 5:00etatik 6:30era. Ikastaroaren ordu kopurua: 60 ordu (azarotik maiatzera).

4).- Ikastaroa Seber Altube ikastolan garatuko da; 2016ko irailaren 20ko bilkuran erabakitakoari jarraituz, honako konpromisoa hartu zen ikastaroen lekuari dagokionean:

- 2016-2017/2017-2018 ikasturteetan: Gernika Institutua
- 2018-2019/2019-2020 ikasturteetan: Seber Altube Ikastolan.
- 2020-2021/2021-2022 ikasturteetan: Mertzede Ikastetxea.
- 2022-2023/2023-2024 ikasturteetan: San Fidel ikastolan.

...../....”

II. ERANSKINA

Ahize-AEK / “Eusliderrak” xedeak, metodologia, kronograma eta aurrekontu proposamena

eus Liderrak	eusLiderrak aurrekontu proposamena	ahize ak hikuntza aholkularia
-------------------------	---	---



GERNIKAKO UDALA


III. Zikloa
Gernika BHI
Barrutialde BHI

1. Sarrera

Hizkuntza ohiturak aldatzeak, beste edozein ohitura aldatzeak bezala, ahalegina eskatzen du. Ez da oraindik asmatu horren ordezeko pilularik. Baina aldaketa hori modu **atseginean** egin daiteke. Horretarako, garrantzitsua da **aldaketa pausoz pauso** ematea, unean uneko **helburu lorgarriei eutsita**, eta parte **hartzailen interes**-arloan eta **motibazioetatik** ahalik eta gertuen.

eusLiderrak saioen helburuak honakoak dira: **hizkuntzekiko jarrerak lantzea, eraldaketa sustatzea, portaera berriak sortzea eta hizkuntza-lidergoa indartzea.**

Azkenean, **jabekuntza- eta ahalduntze-prozesu** batez hitz egiten ari gara.



2. Egitasmoaren egitura

eusLiderrak. Hizkuntza portaera berriak sortzeko tailerra:

eusLiderrak proiektuaren metodologiak eta egiturak oinarria dute EHUKo Gizarte Psikologia eta Giza Portaera Zientzien Metodologia Sailak erakundeetan Berrikuntzaren Kultura Sustatzeko martxan jarritako proiektu batean. Metodologia horri Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzak gehitu dio hizkuntza berdintasunari buruzko informazio giltzarria eta arlo horretan kudeatu dituen proiektuetan jasotako eskarmentua.

eusLiderrak egitasmoa nahi beste aldiz errepika daitekeen zikloa da.



II. zikloan, 3. DBHko ikasleak sentiberatu, hizkuntzen garrantziaz jabetu eta haien arteko euskararen erabilera informala sustatzeko tailerra gidatuko dugu. Horretarako, I. zikloko parte-hartzaile eusLiderrak (4. DBHko ikasleak) formatuko ditugu dinamizatzaile lanetan aritzeko eta beraiek izango dira II. zikloko saioak gidatuko dituztenak; metodologia honekin borondatezko hartzaileen hizkuntza-lidergoa indartuko dugu eta lidergo katea aktibatuko dugu.

II. ziklo horrek 3 fase ditu:

1. fasea: erakundearen atxikimendua lortzeko eta parte-hartzaileen jakin-mina asetzeko kanpaina egiten da.

2. fasea: aurrez aurreko **3 saio** (60'):

1. saioa: **Informazio** esanguratsua ematen zaie parte-hartzaileei portaeran aldaketa dakartzaten faktoreak lantzeko; hau da, aldatzeko motibazioa landu eta aldaketa beharrezkoa dela ikusarazteko.
2. saioa: **Aldaketa sustatzen** da, eta horretarako ereduak eta baliabideak eskaintzen zaizkie. Aldaketa egingarria dela eta **trabak gaingitu daitezkeela ikusarazten** zaie. Ingurukoengan eragin eta aldaketa oztopatu dezaketen ekintzetan eragiteko gaitasuna lantzen da. Saioa ekintza batekin lotzen da. Ekintza erregulatzailerak, bereizgarria, fokalizatuko duena, eta proaktiboa.
3. saioa: Lortutako **aldaketak indartzen** dira. Egindakoaren **feedbacka** ematen da, eta eskaeraren emaitzak ikusten dira. Prozesua nola bizi izan duten aztertzen da: sententzioak eta pertzepzioak jaso. Aldaketaren aurrean emandako erantzuna, norberaren erantzuna, aztertzen da. Ikusarazten da aldaketan sartzen ez dena kezkan jarraituko duela, eta, ondorioz, bidea ekintza dela, eta aldatzen saiatzea.

3. fasea: proiektuak bikoteka garatu eta ekintza soziala gauzatzeko beste 3 saio. Proiektuak hiru motakoak izan daitezke: norberaren interesekoak, euskararen erabilera sustatzekoak, edo erakundearen jardura hobetzeari lotutakoak. Proiektuok, betiere, euskaraz eta modu atseginean landuko dira.

Zikloetako hiru fase horiek nahi beste aldiz errepika daitezke, baita xede-taldearen beharretara egokitu ere.

3. Metodologia

Tailerraren **erreferentzia** metodologiko nagusiak ondokoak dira:

- **Disonantzia kognitiboa:** Pentsatu eta egiten dugunaren arteko oreka lortzeko joera dugu, baina ez da beti ematen. Zerbait txarra dela jakin arren, egin egiten dugu askotan. Horregatik, konbentzimendua landu baino (ezinezkoa da guztiok bat egitea) gertakari esanguratsu bat eragiten saiatuko gara, horrek pentsaera aldatzeko indar handiagoa baitu alderantzizko bideak baino.
- **Terapia labur estrategikoa:** Esku-hartze laburrak eta paradoxikoak egitea sustatzen da. Portaera aldatzea da lehentasuna, ez arazoaren zergatia konpontzea (batzuetan ez dugu horretarako aukerarik). Saiotz kanpo egiteko proposatzen diren ekintzen bitartez salbuespenak sor daitezke eta bizipen emozional esanguratsuak lortu. Horien bitartez, orain arteko portaera elikatzen zuen sistemari arrakala egin diezaiokegu, eta, behin hori lortuta, portaera berria indartuz gero, abiatutako aldaketari eutsi eta sakondu.
- **PRECEDE metodoa:** Portaera desegoki bati buruzko diagnostikoa egiteko tresna da, eta eusLiderrak tailerrak oinarrian dituen 3 saioak egituratzeko erreferentzia izan da. Hala, 1. saioan, aldaketa emateko aurrebaldintzak sortzen dira; 2. saioan, aldaketa emateko tresna eta ereduak eskaintzen dira; eta 3. saioan, lortutakoa indartzen da, aldaketa iraunarazteko. Tresna horrek lagunduko digu tailerrean parte hartuko duten pertsonen ezaugarrien gainean hausnartzen: proposatu diegun portaerari buruzko zer-nolako informazioa eta aurreiritziak dituzten; haien gaitasuna zein den dakiten; tresnak eta ereduak ezagutzen dituzten... Horrek guztiak saioetan erabiliko dugun informazioa aukeratzen lagunduko digu.
- **Counselinga, komunikazioa eta Pertsuasioa:** Borondatez (edo hala egin izanaren pertzepzioz) lortutako aldaketek irauteko aukera handiagoa dute inposatutakoek baino. Horregatik, pertsuasioa, komunikazioa eta marketinaren hainbat urrezko arau erabiltzen dira aldaketa sustatzeko.
- **Lidergo eraldatzailea:** Berdinen arteko harremanen bitartez eraikitako portaera berriak iraunkorrak dira kanpotik etorritako adituek emandako argudioetan bakarrik oinarritutakoak baino.

4. Bezeroen iritzi batzuk

Lotura **honetan** ikus daitekeen bideotik jasota daude jarraian ditugun iritzi hauek.




Marian Mallea

Berriz DBHko irakaslea

Ikasleen artean jarrera aldaketa ikusi dugu. Esate batera, aurretiaz gu talde bati buruz eduki dugun iritzia. Euskararen aurrean epel samar edo nahiko arduragabeak direlakoan egon garen kasuetan, tailer hau egin eta gero, hurrengo urterako izena eman behar denean, harriiduraz ikusi dugu, hainbatek ematen duela izena.

Nik gomendatuko nioke tailer hau Bigarren Hezkuntzako edozein ikastetxeri. Adin honetako ikasleentzako eraginkorra, aproposa edo gustagarria delako.



Maite Barruetabeña

Gipuzkoako Foru Aldundiko Funtzio Publikoko zuzendaria

Ikastaro hau egin arte, egiten ez zituzten deiak, kontsultak, galderak... egiten hasi dira. Bai, nabaritu da gogo bat sortu dela.

Baloraziorik positiboena da esaten dutela beste edozeini gomendatuko lioketela ikastaro hau. Eta gehienek sententzioa da, eta nire ustez ikastaro batean hori oso positiboa da, oso motza egin zaiela eta gehiago nahiko luketela egin.



Mikel Irizar

Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaria

Hizkuntzarena ez da gai periferikoa, eta txertatzen ari da, gero eta gehiago, kudeaketa arruntean, eta beste guztiaren arduraduna dena hizkuntzaren arduraduna ere bada. Gu gara haren laguntzaileak. Aholkulari edo animatzaileak izan gaitezke. Hori asumitzen laguntzearekin batera, lagundu behar diogu, baita ere, ardura berri hori ganoraz, jakinduriaraz eta ahalmenez betetzen. Hori da eusLiderrak programaren funtzioa.



Begoña Gutierrez
Egogain Gerontologia Zentroko
zuzendaria

Erabili ziren dinamikak parte hartzera bultzatzen gintuen, eta, nik esango nuke, eroso sentitu ginela denok dinamika horietan.

Zuzendaria naizenez, eredu izan nahi dut beste langileentzat. Nik esaten dut, nire hazitxoak jartzen dudala, eta, hazi txiki hori, behin egoera egokia izanez gero, handituko dela. eusLiderrak tailerra lagundu dit hori guztia lortzen.



Bittor Zarrabeitia
Gernikako Udaleko Euskara teknikaria

Jarraitzeko asmoa daukagu. Ikastetxe batean izan dugun esperientziaren ondorioz, beste esparru batean ere martxan jartzeko asmoa daukagu: kirolaren munduan txertatu nahi dugu.

5. Ahize-AEKren esperientziak

- Eibar BHI, La Salle, Aldatze ikastetxeak I.zikloa (Eibar)
- Lautada ikastola I.zikloa (Agurain)
- Aniturri BHI I.zikloa (Agurain)
- San Nikolas ikastola I.zikloa (Getxo)
- Eguzkibegi ikastola II.zikloa (Galdakao)
- Aresketa ikastola I.zikloa (Amurrio)
- Badala institutua II.zikloa (Langraitz)
- Arratia institutua II.zikloa (Igorre)
- Zunzunegi institutua II.zikloa (Portugalete)
- Ballonti institutua II.zikloa (Portugalete)
- Berrizko institutua VIII.zikloa (Berriz)
- Mertzedek ikastetxea (Gernika)
- San Vicente Paul ikastetxea (Irun)
- Santa María ikastetxea (Portugalete)
- Urritxe BHI (Zornotza)
- Lemoa BHI (Lemoa)
- Gernikako institutua (Gernika)
- Barrutialde institutua (Nabarniz)
- Egogain Gerontologia Zentroa (Eibar)
- Denon eskola. Arabako guraso elkarten federazioa (Gasteiz)
- Osakidetza: Mendaro Ospitalea (Mendaro)
- GFAko arloetako langileak eta arduradunak (Gipuzkoa)
- Berrizko Udala (Berriz)
- Busturiako Udal langileak (Busturia)
- Portugaleteko Udal langileak (Portugalete)
- Lemoako Udal ordezkariak (Lemoa)
- Sestaoko Udaleko kiroleko langileak (Sestao)
- Ordiziako Udaltzaingoa (Ordizia)
- Darabilbo. Auzoetako eragileak (Bilbo)
- Busturiko eskolako jantokiko hezitzaileak (Busturia)
- Busturiko guraso elkarteko gurasoak (Busturia)
- IMH (Elgoibar)
- Aisialdi eta kirol hezitzaileak (Kanpezu)
- Gernika Futbol Taldea (Gernika)
- Amurrioko Kaskagorri Futbol Taldea III. Zikloa (Amurrio)
- Danena Futbol taldea (Zizurkil)
- P.M. Otaño ikastetxeko gurasoak (Zizurkil)
- Metro Bilbao (Bilbo)
- BATZ koop. (Igorre)

6. Proposamen ekonomikoa

Aurrekontuak jasotzen dituen kontzeptuak hauek dira:

3. DBHko 143 ikasle eta 4. DBHko 10-12 ikasleko 2 talde (talde bat Gernika BHIn eta beste talde bat Barrutialde BHIn):

- 1. faseko **euskarriak**
- 2. faseko **aurrez aurreko 3 saioak**.
- 3. faseko talde proiektuak eta ekintza soziala (aurrez aurreko **6** saio eta aholkularitza)
- Saioetan erabiliko den **materiala**.
- Bidaia eta dietei lotutako gastu-kontzeptu guztiak.
- **143** ikaslerentzako eusLiderrak kamisetak.
- **Aholkularitza eta laguntza teknikoa** proiektu osoan zehar (koordinazioa, informazio bilerak, balorazio txostenak).

Aurrekontua	
eusLiderrak tailerra	4.220,00 €

BEZ salbuetsita

Ordainketa-epeak

Egin beharreko ordainketak epe hauetan egingo dira:

Lehen ordainketa aurrekontuaren % 50 izango da, **urtarrilean** egitekoa.

Bigarren ordainketa aurrekontuaren % 50 izango da, proiektua amaitzerakoan egitekoa, **ekainean**.

Ordainketak fakturak jasotzean egingo dira, bertan zehaztutako kontu korrante zenbakian.

Kontratua hasi eta gero, Euskaraz Kooperatiba Elkarteak lanetakoren bat egiten ez badu, aurrekontutik kenduko da; lana ez egitearen erantzukizuna Euskaraz Kooperatibarena ez bada, ordea, gainerakoak bezala ordainduko da.

Bigarren kasu hori emango balitz, ordezkio lanak adosten saiatuko ginateke.

Lankidetzaren proposamenaren balio-epea

Elkarlanerako proposamen honek dakartzan baldintza ekonomikoek 20 eguneko balio-epea dute, **Gernikako Udalar**i aurkeztutako egunetik aurrera.



gernika-lumoko
euskara zerbitzua



III. ERANSKINA

GAZTERREN 2018-2019ko
balorazioa eta 2019-2020rako
PROPOSAMENA

GIZARTE TREBETASUNAK LANTZEKO PROGRAMA

Gernika, 2018 - 2019

SARRERA

Jarraian, 2018-2019 ikasturtean Gizarte Trebetasunak lantzeko programan egindako ekintzen memoria aurkezten dugu. Programa Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko EIPSEko gizarte hezitzaileek zuzendu dute.

Parte hartu duen taldea, 2018ko urrian sortu zen eta 2019ko abenduan amaitu da. Astrako lokaletan batu izan gara astean behin (asteazkenetan), eta udalerriko baliabide komunitarioak ere erabili izan ditugu (Gaztelekua, Liburutegia, Kultur etxea...).

Programa honek Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Saitetik diru-laguntza jaso du urtero bezala, eta honi esker, Urtxintxako profesional baten laguntza eduki dugu, euskararen erabilera eta interkulturalitatea sustatzeko. Aurten, 2019ko lehenengo seihilekoan parte hartu du.

Programan 10 umek hartu dute parte, eta seiren familiek beste esku-hartze mota (esku-hartze familiarra, arreta psiko-soziala, psikomotrizitatea) eduki dute talde-programarekin batera.

ASISTENTZI, PARTEHARTZE ETA TALDE KOHESIO MAILA

Programa, aurten, bi gizarte hezitzailek zuzendu dute eta hirugarren baten laguntza izan dugu behar izanen arabera. Guztira, 10 parte-hartzaile egon dira ikasturtean zehar. Parte-hartzaile zenbakia mantendu da kurtsoaren zehar.

	GUZTIRA	BERTOKOAK	ETORKINAK
PARTAIIDEAK	10	6	4
MUTILAK	6	5	1
NESKAK	4	1	3

Ikasturte honetan beste urteetan baino neska gehiago egon dira. Etorkinei dagokienez, ikasturte honetan, lau etorkin egon dira, bat Errumaniakoa, bat Kolombiakoa eta bestea Senegalekoa. Laugarrena Galiziakoa da.

Adin-txikikoen asistentzia maila oso altua izan da.

Ekintzekiko taldeak erakutsi duen parte hartze maila oso ona izan da orokorrean. Proposatutako jarduerak oso ondo hartu dituzte. Gustura etorri izan dira saioetara, eta erakutsi duten motibazio maila oso ona izan da.

PROGRAMAREN HELBURUAK

- **Gizarte harremanetan zailtasunak dituzten adin txikiko neska-mutil etorkinen harrera lana egitea eta parekoekin harremanetan jartzeko gunea ahalbidetzea.** Helburu nagusia da hau Komunikazio gaitasunak, enpatia, gatazken konponbidea eta sentimenduen adierazpena landu dira.
- **Autoestima indartu.** Autoestima indartzeko helburua duten hainbat dinamika aurrera eraman diren arren, programa guztian zehar zeharka landu den helburu garrantzitsuenetariko bat izan da hau. Programak, parte-hartzaileen beraien, eta taldekideen dohainak identifikatzea errazten baitu.
- **Etorkinen integrazioa erraztu eta programa beraien ekarpenekin aberastea.** Parte-hartzaileak euren artean ezagutzeko balio du eta bakoitzak bere ekarpenak egiten ditu taldean.
- **Parte-hartzaileen gizarte trebetasunak bultzatu.** Kide gehienek dute arlo hau lantzeko beharrezana eta ondorioz helburu honi garrantzi berezia ematen diogu programan zehar.

SAIOEN EDUKIAK ETA METODOLOGIA

Programa autoestima, sentimenduak, interkulturalitatea, gatazken konponbidea eta gizarte trebetasunak lantzeko dinamiketan zentratu da. Programa asteen behin izan da, ordu eta erdiko iraupena izan du.

Saioen antolaketa hiru momentu desberdinetan banandu ditugu gehienetan:

- Harrera – Jolas librea
- Jolas gidatua. Hezitzaileak dinamizatutako ekintzak.
- Sukaldaritza

Taldea nahiko homogenea izan da, hau da, antzeko beharrak dituzten neska-mutilak izan dira parte-hartzaileak.

Era ludikoan planteatzen direnez jarduerak, umeen jarrera positiboa da. Izan ere, mugimendukoak diren ekintzek, adierazteko eta komunikatzeko bideak erraztu dituzte eta talde dinamika izan da gehien erabili den metodologia.

Hemen agertzen dira kurtso honetan egindako ekintzak:

EGUNA	EKINTZA
1. 2018-10-17	LEHEN EGUNA, EZAGUTZEKO DINAMIKAK
2. 2018-10-24	ARAUAK, ESKULANA ETA SUKALDARITZA
3. 2018-10-31	HALLOWEEN TAILERRA. SUKALDARITZA
4. 2018-11-07	JOLASAK. SUKALDARITZA TAILERRA
5. 2018-11-14	EMOZIOAK. SUKALDARITZA TAILERRA.
6. 2018-11-21	GAZTELEKU.
7. 2018-11-28	EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA TAILERRA
8. 2018-12-05	JOLASAK ETA SUKALDARITZA TAILERRA
9. 2018-12-12	GABONETAKO TAILERRA ETA SUKALDARITZA
10. 2018-12-19	GABONETAKO TAILERRA: ARBOLA
11. 2019-01-09	IMITAZIO DINAMIKAK ETA PAPIROFLEXIA
12. 2019-01-16	JOLASAK. SUKALDARITZA TAILERRA
13. 2019-01-23	KARTETAKO JOLASAK
14. 2019-01-30	KOLORE-KOLORE JOLASA. SUKALDARITZA.
15. 2019-02-06	GOMETZEKIN EGINDAKO ESKULANA
16. 2019-02-13	MUSIKA
17. 2019-02-20	JOLASAK ETA SUKALDARITZA
18. 2019-02-27	JOLASAK ETA SUKALDARITZA
19. 2019-03-06	SENTIMENDUAK. SUKALDARITZA.
20. 2019-03-13	LIBURUTEGIA ETA KULTUR ETXEA
21. 2019-03-20	MIMIKAKO DINAMIKAK.
22. 2019-03-27	GAZTELEKU
23. 2019-04-10	JOLAS LIBREAK ETA TANGRAM.
24. 2019-05-08	EMOZIOAK ETA SUKALDARITZA.
25. 2019-05-15	PELIKULA
26. 2019-05-22	JOLASAK ETA SUKALDARITZA TAILERRA.
27. 2019-05-29	ESKULANA
28. 2019-06-05	PUXIKAK. SUKALDARITZA TAILERRA.
29. 2019-06-12	JOLAS KOOPEATIBOAK. SUKALDARITZA.
30. 2019-06-19	KURTZOAREN AGURRA ETA MERENDOLA
31. 2019-10-02	UDAKO ARGAZKIAK ETA ARAUAK GOGORATU
32. 2019-10-09	SENTIMENDUAK. SUKALDARITZA.
33. 2019-10-16	JOLASAK ETA SUKALDARITZA
34. 2019-10-23	GAZTELEKU.
35. 2019-11-06	KARTETAKO JOLASAK. SUKALDARITZA.
36. 2019-11-20	PELIKULA

37. 2019-11-27	PELIKULA ETA SUKALDARITZA
38. 2019-12-11	AZKENENGO SAIOA. EBALUAZIOA.

Aurtengo udan hiru txango egin ditugu, guztiak uztailean. Hegaluzeko irteeran parte-hartzaileen familiak ere parte hartu dute. Guztira, 32 pertsonen parte hartu dute txango honetan.

Oso positibotzat jotzen dugu mota honetako ekintzak egitea, haurren eta bere familien funtzionamenduaren inguruko adierazle asko ikusten baitira. Aldi berean, eurentzat esperientzia berri eta bizigarriak izateko aukera ematen die.

Uztailean:

2019-06-26	HEGALUZE – ITSASONTZIA. Gurasoekin
2019-07-03	KANOAK MUNDAKAN
2019-07-10	BASONDO

EBALUAZIOA

Orokorrean, giroa ona izan da eta umeek gustura parte hartu dute. Kurtsoan zehar landudiren ekintzak ugariak izan dira: jolas kooperatiboak, sukaldaritza tailerrak, mahai jolasak, kanpo jolasak, ezagutzeko eta konfiantza lortzeko jolasak, emozioak lantzeko dinamikak, beste kultura batzuk ezagutzeko jolasak, marrazkiak, eskulanak... Euren eskaera kontutan izanda, gehien erabilitakoak sukaldaritza tailerrak izan dira. Tailerretan egindakoak gero etxera eramanez ahal izan dute.

Euskarari dagokionez, neska-mutilek ondo hitz egiten dute euskaraz, eta aurten gehienak ez dute gaztelaniaz hitz egiteko ohitura izan.

Astran programa egitea aukera oso ona izan delakoan gaude, espazioak ekintza gehiago egiteko aukera ematen digu. Era berean, familiek herriko beste baliabide bat ezagutzen dute. Astrako arduradunagaz eduki dugun harremana oso ona izan da. Beti prestatuta egon da gu laguntzeko.

Parte-hartzaileak oso pozik egon dira eta asko gustatu zaie. Senideen balorazioa ere positiboa izan da.

Gernika-Lumon, 2019ko abenduaren 26an

Gizarte-Hezkuntzako Esku-Hartze Taldea (GHET)

2019-2020 IKASTURTERAKO PROPOSAMENA **“GAZTERREN EGITASMOA”** **(BIZKAIKO URTXINTXA ESKOLA)**

SARRERA

Jarraian duzuen txostenean Gazterren egitasmoa martxan jartzeko proposamena jasotzen da. Aurreko urteetako esperientzia kontuan hartuta, eta indargune eta ahulguneetan oinarrituta, ikasturte osorako egitasmoa aurkezten dugu. Urtero bezala egitasmoaren oinarri nagusiak kulturartekotasuna eta euskararen balioak modu ludiko eta dinamikoan sustatzea izango dira.

BIZKAIKO URTXINTXA ESKOLAREN AURKEZPENA

Sorrera

Bizkaiko Urtxintxa Eskola, Astialdi eta Suspertze Soziokulturaleko Eskola, bere beharrei egokitutako hezkuntza biderik aurkitzen ez zuten astialdiko eta kultura arloko talde batzuei hezkuntza eta jarraikortasuna emateko asmoz sortu zen 1986. urtean.

Helburua

Elkartearen helburu nagusia balioetan oinarritutako astialdi hezitzailea bultzatzea da, jendarteren eraldaketa bermatzeko. Horretarako, gure jarduera nagusia pertsonak alor honetan trebatzea da. Jendartetik abiatu eta jendartera iristea.

Zer jorratzen dugu?

Eskolaren ardatz nagusiak hiru dira; euskararen hizkuntz normalizazioa, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna eta kulturartekotasuna. Nahiz eta badiren beste balio eta gai batzuk presente ditugunak eguneroko jardunean, hala nola, ingurumena, heziketa premia bereziak, partaidetza...

Aisiaren eta astiaren antzaldatzean sinisten dugu eta baita astialdi hezitzailean ere, gauzak horrela, balioetan oinarritutako egitasmoak burutzen ditugu eta helburu eraldatzailea dugu presente. Egitasmo hauetako batzuk honako hauek dira: trebakuntza saioak, materialen sorkuntza, aholkularitza zerbitzua...

Nola jorratzen dugu?

Kalitatezko profesionalak (jendartean aktiboki parte-hartzen dutenak), hezkuntza pertsonalizatua, programa berritzaileak, baliabide material egokiak eta eguneratuak, gaurkoturik dagoen metodologia eta kudeaketa eraginkorra eskaintzen dugu. Horretarako, metodologia parte-hartzailea, aktiboa, praktikoa, ikertzailea eta iraunkorra da erabiltzen duguna.

Eragin eremua eta jasotzaileak

Gure eragin eremua Euskal Herria da eta jasotzaileei dagokienez, adin tarte guztietako pertsonak izaten ditugu gurean. Horrez gain, aniztasunean oinarritzen da gure jasotzaileen profila; kultura, sexu, gaitasun, hizkuntza...desberdinak.

Guk antzemandako beharrei erantzuteko sortutako egitasmoez gain, elkarte, udal, instituzio eta erakunde anitzentzat programak kudeatzen ditugu betiere, egun Urtxintxa Eskolan jorratzen ditugun balioetan oinarrituta.

Urtxintxa Eskolak bere ibilbidea hasi zuenetik 25 urte igaro dira. Aldi honetan zehar 30.000 pertsona inguruk hartu du parte gure ikastaro eta egitasmoetan.

Eragin eremua eta jasotzaileak

Gure eragin eremua Euskal Herria da eta jasotzaileei dagokienez, adin tarte guztietako pertsonak izaten ditugu gurean. Horrez gain, aniztasunean oinarritzen da gure jasotzaileen profila; kultura, sexu, gaitasun, hizkuntza...desberdinak.

Guk antzemandako beharrei erantzuteko sortutako egitasmoez gain, elkarte, udal, instituzio eta erakunde anitzentzat programak kudeatzen ditugu betiere, egun Urtxintxa Eskolan jorratzen ditugun balioetan oinarrituta.

Urtxintxa Eskolak bere ibilbidea hasi zuenetik 25 urte igaro dira. Aldi honetan zehar 30.000 pertsona inguruk hartu du parte gure ikastaro eta egitasmoetan.

HEZKUNTZA PROIEKTUA

Gure hezkuntza proiektuaren ezaugarriak honako hauek dira:

☐ ☐ **Parte-hartzailea:** Eskola jendearen parte-hartzeari esker eraikitzen da eta era berean, Eskolaren ekite nagusia jendartean partaidetza sustatzea da.

☐ ☐ **Elkartasunean oinarritua:** Jendarte justu, demokratiko eta anitz bat bermatuko duen elkartegintza lortzearen aldeko interes bat aurkeztzen duen pertsonen irekia dagoena.

☐ ☐ **Inklusiboa:** Pertsona guztiak hartzen dituen, beraien baldintza fisiko, intelektual, sozial, emozional, linguistiko edo beste batzuei erreparatu gabe eta hizkuntza, etnia eta kultura gutxituetakoak edota beste eremu baztertuetakoko pertsonak barne.

☐ ☐ **Integrala:** Garapen prozesua bere osotasunean bultzatzen duena, eskolaz kanpoko eremua ere barneratuz.

☐ ☐ **Behatzailea:** Inguruan eta norbere barnean gertatzen dena gogotsu aztertzekeo jarrera duena dauden beharrez, indar-gunez, aukerez eta gabeziez jabetuz.

☐ ☐ **Eragilea:** Prozesu baten ondorioz eraikitako pentsamendua jendartean

□□**Sortzailea:** Egoera ezberdinetan irudimena eta dinamikotasunez, era berritzaile batez, aukera ezberdinak eraikitzen dituen.

□□**Euskalduna:** Euskal Herriak dituen berezko nortasun eta ezaugarri historiko, sozial, kultural eta politikoak transmititzen dituen eta euskararen normalizazioaren bidean lan egiten duena.

□□**Hezkidetzaila:** jendartean gertatzen den sexuaren arabera bereizketari aurre eginez, pertsona guztiak aukera eta eskubide berdinetan hezten dituen, jarrera ez sexista bati eutsiz.

URTXTINTXA ESKOLAREN BISIOA ETA MISIOA

Urtxintxa Eskola, jendartean eraldaketa bultzatzeko eta agente aktiboak sortzeko, hezkuntzaren eremu ez formalean diharduen elkarte izaerako eragile dinamikoa da, antolaketa eta kudeaketa eredu egoki baten babespean, ekonomiaren eta bere jatorrizko filosofiaren arteko oreka lortu nahi duena.

Horretarako, bere zeregina, hezkuntza proiektuaren ezaugarriak, metodologia eta balioak jendartera transmititzea da, bere jatorrizko izaera mantendu.

KULTURARTEKO HEZKUNTZA ETA EUSKARA SUSTATZEAREN ALDEKO LANA URTXTINTXA ESKOLAN

Urtxintxa Eskolan, hiru dira nagusiki lantzen diren ardatz estrategikoak: **euskara, kulturartekotasuna eta aukera berdintasuna**. Arlo hauen barruan, herrietan, ikastetxeetan, aisialdian eta beste zenbait esparrutan burutzeko egitasmoak, jarduerak, dinamizazioak eta trebakuntza saioak sortzen ditugu, eta horrez gain, arlo hauen inguruko material pedagogikoa kaleratzen dugu euskara hutsez.

Burutzen diren jarduera guztietan eta sortzen diren egitasmo eta material guztietan hiru balio hauek lantzen dira zeharka, metodologia parte-hartzaile eta dinamiko bat jarraituz eta elkarlana bultzatuz. Aipatu ere, nahiz eta egitasmo edota jarduera hori balio zehatz bat lantzeko izan, beste bi balioak ere txertatzen direla, osotasunean, balioetan hezteko egitasmo bihurtuz.

Kulturartekotasuna

Orain dela urte batzuk, Urtxintxa Eskolak **kulturartekotasuna** lantzeko apustua egin zuen eta gaur egun kulturartekotasun arloa, Urtxintxa Eskolako arlo estrategiko bat da. Honen helburu nagusiak, **kulturen arteko elkarbizitza sustatzea eta jendartean arrazakeriaren prebentzioa lantzea dira**.

Kulturartekotasuna, beraz, aniztasun egoeren aurrean izan dezakegun ikuspegi bat da, berdintasunean oinarritua eta aniztasuna aberasgarri bezala ulertzen duena. Sorreraz,

korronte pedagogiko bat da, baina baita hori baino gehiago ere: mundu ikuskera berri bat da eta jendartea ulertu eta antolatzeko irizpideak azaltzen dizkigu.

Korronte honen funtsa kultur aniztasuna errespetatu eta baloratzean datza, aniztasun hori faktore aberasgarri eta positibo bezala ulertu eta ideia horretan oinarrituz, jendarte harremanen eraikuntza garatzea.

Horretarako, urte hauetan zehar, egitasmo, trebakuntza saio eta material didaktiko ezberdinak sortu ditugu Urtxintxa Eskolatik.

Euskara

Euskara arloari dagokionez, hizkuntzaren normalizazio bidean eragitea da xede nagusia eta hori dela eta, arlo honetatik hainbat egitasmo sortu dira eta sortzen ari dira, beti ere, **jendartearen esparru guztietan euskara sustatzea eta euskararen transmisioa bermatzea** helburu dutenak.

Aipatu behar da ere, Urtxintxa Eskolako dinamika eta zerbitzu guztia euskaraz dela, eta horren adierazle da eskuratu dugun “zerbitzua eta lana euskaraz” ziurtagiria. Eguneroko tresna eta baliabide guztiak euskarazkoak dira Eskolan, langile guztiak ere euskaldunak dira, eta eskaintzen den zerbitzu oro, **euskaraz** eskaintzen da.

Eskolatik argitaratzen den material guztia ere euskaraz da, eta ez hori bakarrik, materialaren zati bat euskara sustatzeko helburuarekin kaleratutakoa da.

ARGITALPENAK

Urtxintxa Eskolak hainbat urte darama kulturarteko hezkuntza eta euskara sustatzeko eta hezitzaileei baliabideak emateko lanean. Horretarako talde lanean oinarriturik, gaian adituak diren irakasle, pedagogo eta adituak jarri ditugu lanean. Hona hemen bi arloetatik sustatutako hainbat argitalpen:

☐ ☐ **Balioetan hezteko koadernoak** bildumaren lehen alea: ***Aisialdian euskaraz.***

Balioetan hezteko koadernoen bidez, hezitzaileei hausnarketarako edukiak, metodologiak, aholkuak, kasu praktikoak eta baliabideak eskaini nahi zaizkie balio zehatzak egunerokotasunean lantzeko aukera emanez. Kasu honetan, koaderno honen bidez, hezitzaileek, beraien lanean euskara sustatzeko estrategiak, gomendioak eta baliabideak eskuratuko dituzte.

☐ ☐ **Balioetan hezteko koadernoak** bildumaren hirugarren alea: ***Kulturarteko aisialdia.***

Orain direla urte batzuk kulturartekotasuna lantzeko apustua egin genuen eta gaur, gure arlo estrategikoetako bat da. Arlo honetako helburu nagusiak, kulturen arteko elkarbizitza sustatzea eta jendartean arrazakeriaren prebentzioa lantzea dira eta koaderno honetan, horretarako bideak azaltzen dira. Marko teorikoa alde batetik, eta bestetik haur eta gazteekin kulturarteko hezkuntza sustatzeko gomendio eta kasu praktikoak eskaintzen dira.

□□ **Balioetan hezteko koadernoak** bildumaren bosgarren alea: ***Heldu berriak euskaraz murgilduz.***

□□ ***Nahas-Mahas kulturen zukuan dantzan*** CD-liburuxka.

Hezitzaileok bi baliabide aurkituko dituzue kutxan, lehena, hausnarketa teorikoa lantzeko liburua eta bigarrena praktikan jartzeko 15 tekniken animazioak CD batean. *Nahas-Mahas: kulturen zukuan dantzan* hausnarketarako liburuxka eta kulturartekotasuna lantzeko teknikekin osotatutako CDRoma da. Etorkinei buruzko zenbait datu biltzen dira eta oinarrizko hiztegia jasotzen da hezitzaileei mami teorikoa argitzen laguntzeko eta ondoren, kulturarteko hezkuntza sustatzeko hainbat tekniken azalpena eskaintzen da.

□□ ***Mundua jolasean*** liburua.

Lehen hezkuntzako haurrekin beste kulturak ezagutuz, aurreiritziak alde batera utziz, jarrera eta jokabide arrazisten prebentzioa lantzeko jolasak eta tailerrak azaltzen dira argitalpen honetan. Kontinente bakoitzeko bost jolas eta bost tailer proposatzen dira.

□□ ***Jira Bira Munduari Begira*** liburua.

Argitalpen berri honetan, hamabi herrialde ezberdinetako 24 jolas, 12 tailer, 12 errezeta eta 12 ipuin aurki ditzakezue. Agertzen diren herriak, Euskal Herrian dagoen kultur aniztasuna kontuan hartuta aukeratuak izan dira.

□□ Disko eta liburua: ***KATRAMILA. Goizetik gauerako abesti-jolasak.***

Bizkaiko Urtxintxa Eskolak argitaratutako “**Katramila. Goizetik gauerako abesti-jolasak**” izenburupean doan liburu + disko honek, 0-6 urte bitarteko haurrek eguneroko errutinak euskaraz egiteko 29 abesti-jolas biltzen ditu. Goizeko 8:00etan hasi eta gaueko 22:00k arte, ordu erdiro errutina bat egiteko abesti-jolas bat aurki dezakegu, bere pentagramarekin eta bere azalpen pedagogikoarekin. Hortaz, haurrek eta hezitzaileek, esnatzen direnerako, maitasuna adierazteko, hortzak garbitzeko, jatera doazenerako, bainua hartzeko, euskaraz egitera animatzeko, lotara doazenerako, ... baliabideak aurkituko dituzte.

GAZTERREN EGITASMOAREN PROPOSAMENA

Ondoren aurkezten dugun proposamenak Busturialdeko EISEak egindako eskaerari erantzuten dio, eta kulturarteko hezkuntza eta euskara uztartzen dituen egitasmoa da.

Gaur egun, migrazioak direla eta, kultura anitzak elkartu gara Euskal Herrian. Ez da erraza jendartea errealitate berri horretara egokitzea, alde batetik, inguratzen gaituzten eragileek (komunikabideak, klasizismoak...) printzipio arrazistak dituztelako, eta, beste alde batetik, etorri berri direnak herriko eguneroko bizitzan murgildu behar direlako, aurreiritziak, mesfidantzak eta zenbaitetan, hizkuntza ere, oztopo bat izanik.

Horretarako, egitasmo honen bidez, jarrera arrazistak ekiditeaz gain, bertako kulturantzatasuna eta horrek dakarren aberastasuna aprobetxatu nahi da haur eta gazteekin kulturartekotasuna eta herriko hizkuntza den euskara landu.

HELBURUAK

Helburu orokorra:

☐ Jatorri kultural anitzetako haur eta gazteak elkarrekin herrian euskaraz murgiltzea, kulturantzatasuna aberastasun gisa ulertuz.

Helburu zehatzak:

☐ Haur eta gazteen artean kulturarteko hezkuntzaren oinarri diren balioak sustatzea (elkarrekiko errespetua, bizikidetzatza, elkartasuna,...).

☐ Gazteen arteko jarrera arrazista eta xenofoboak saihestea eta prebenitzea.

☐ Haur eta gazteen artean euskararen erabilera bultzatzeko eta pizteko bitartekoak jartzea.

☐ Musikarekin lotutako jardueren bidez jarrera inklusiboak sustatzea.

☐ Musika modu gozagarrian bizitzea

☐ Norberaren identitatea indartzea eta talde lana bultzatzea.

☐ Garapen emozional eta afektiboa indartzea.

☐ Entzumena lantzea

METODOLOGIA

Erabiliko dugun metodologia haurren eta gaztetxoaren ezaugarriei eta gaitasunei egokiturikoa, aktiboa, parte-hartzailea eta integrala da.

Honako hauek dira gure **metodologia** ildoaren ezaugarri orokorrak:

☐ Parte-hartzailea eta dinamikoa.

☐ Hezkidetzatzailea, ez sexista eta ez baztertzatzailea.

☐ Ulerkorra, arrazionala eta aktiboa.

☐ Une guztietan hezten duena.

☐ Zehatza.

☐ Esanguratsua eta praktikoa.

☐ Komunikakorra.

☐ Aurrerakoia eta askatzatzailea.

☐ Ingurumenaren ezagutza eta errespetua bultzatzen duena.

- ☐ Jolasak ardatz dituenak.
- ☐ Pertsonen arteko harremanak bultzatzen dituenak.
- ☐ Elkarbizitza eta elkar-erantzukizuna sustatzen dituenak.
- ☐ Pertsonen bizipenetatik abiatzen dena.
- ☐ Izaera erreflexiboa.
- ☐ Trataera globala eta integrala.
- ☐ Adierazpena bultzatzen duena.

Proposatzen dugun metodologiak bakoitzaren esperientziatik abiatuta eta dinamika parte-hartzaileak erabiliz, jolasean du oinarria; eta aktiboa, parte-hartzailea, erraza eta integrala da. Talde izaera garatzea du helburu, taldeko partaideen ezaugarriak errespetatuz eta bizipen egokiak emanez.

Helburuetako bat taldean eta herrian dagoen aberastasun kulturala positibizatzea izanik, ahalegin berezia egingo da haur-taldearen jatorri kulturala aintzat harturik programazioa garatzeko. Hartara, taldeko gazteen errealitatea hurbilagotik ezagutzeko aukera izango da, enpatia, elkarkidetzeta eta elkarbizitza lantzearekin batera. Jatorri kultural ezberdinetako haurren arteko elkartrukea bilatuko da, elkar heziz eta taldea aberastu asmoz.

Ekintza ezberdinak burutzean, hezitzailea izango da bere taldea dinamizatzeko ardura izango duena. Lan egiteko era honekin, haur eta gaztetxo bakoitzaren jarraipen zehatza egin daiteke, sortzen diren beharrei erantzuna eman ahal izateko eta hartzaileak giro berri honetara erraz moldatzeko.

Gazterren egitasmorako metodologia berezia eta interesgunearen zergatia:

Haur eta gazte parte-hartzaileen motibazioa kontuan hartuta, Ovide Decroly-k sortutako metodo pedagogikoa jarraituko dugu, **interes gunea** deritzona. Metodo hori parte-hartzaileen interesekin bat doan gai bat proposatzean datza.

Transmititu nahi diren edukiak gai horrekin erlazionatutako ekintzen bidez lantzen dira. Metodo horrek jakin-mina, interesa eta irudimenaren indartzea sustatzen ditu.

Aurreko urteko arrakasta ikusita, aurtengo interesgunea honakoa izango da: **SUKALDARITZA. “MUNDUKO SUKALDARIAK”** izenburupean, egitasmo hau sukaldaritzaz bustiko dugu, eta janariari jarraiki saio hauek zapore eta testura bereziz josiko ditugu.

Sukaldaritzak gure bizitzako eremu guztiak ukitzen ditu, eta asko esan edo adieraz genezake sukaldaritzaren bidez. Gastronomia kultura ezberdinetan, komunikatzeko

bitarteko garrantzitsua da, eta hau izango da egitasmoko oinarri. Sukaldaritzak gainera aukera paregabeak eskaintzen dizkigu kulturarteko hezkuntza lantzeko. Munduko bazter guztietan dugu sukaldaritza, herrialde bakoitzean bere ohiturei lotutako gastronomia tradizional eta jaki bitxiak daude. Herrialde bakoitzak bere bitxikeriak ditu, baina bada denok lotzen gaituen zerbait: SUKALDARITZA denon bizitzetan bizi-bizirik dagoen elementua da. Ospakizunak egiteko, erlaxatzeko, haurrak lokartzeko, jolaserako, ikasteko, ondo pasatzeko, festarako, agurtzeko eta abar...

Sukaldaritza oinarri hartuta, euskara, sormena, parte-hartzea, aukera berdintasuna, kulturartekotasuna, ingurumen hezkuntza, elkartasuna, bizikidetzeta,... landuko ditugu, saio bakoitzean prestatuko dugu janari berezi bat eta hori izango da gure merienda. Lehenengo sukaldari jantzia sortuko dugu eta ondoren lanean hasiko gara fin-fin! Erantzunkidetasuna, higiena, ardura, elkarlana, sormena...izango dira oinarrian. Burutuko diren ekintzen artean, errezetak, jaki jolasak, sormen tailerrak,errezetategiak... izango dira.

Sukaldaritzarekin zuzenean lotutako jardueraz gain, ohiko ekintzak egiteko aukera ere izango dugu, jolasak, tailerrak, ipuin-kontaketak, kirol ekintzak,... Erabiliko den metodologia: dinamikoa, parte-hartzailea, inklusiboa eta elkarlanean oinarritua izango da. Interesgune baten bidez jarduera guztiei lotura emango zaie.

Kulturartekotasuna sustatzeko metodologia

Hezitzaile bezala, kontziente izan behar dugu heziketa ez dela jarduera puntualen multzoa (kulturen jaialdia, dantzak...), prozesu bat baizik, horregatik kulturartekotasuna zeharka lantzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu.

Kulturartekotasuna zeharka lantzen ez bada, jarduerak, folklorismo hutsean geratzeko arriskua dago. Hau ekiditeko, proposatutako jardueran edo proiektuan zehar eta naturaltasunez (helburuetan, inguruaren azterketan, ekintzetan, menua proposatzerakoan, taldeak egiterakoan, ebaluazioan...) kulturarteko ikuspegia kontuan hartuko dugu.

Horretarako, alde batetik, oso garrantzitsua da haurren errealitatea ezagutzea. Nahiz eta haurra herrialde zehatz batean jaio, ez du esan nahi kulturaren adierazle guztiak aurrera eramango dituenik.

Kulturarteko hezkuntzak, berdintasunean oinarritutako harremanak bultzatzen ditu, gehiegizko babesak alde batera utziz. Kulturartekotasunak, kulturen gogoeta kritikoa proposatzen du.

Gure taldeetan antzematen den aniztasun egoera honetan, kultura guztiek ekarpen aktiboak egiten dituzte. Kulturen arteko harremana gertatzen denez, kultura etengabe eraldatuz, ez dago ghettoak sortzeko arriskurik.

Kulturarteko hezkuntza aisialdian lantzeko, hamaika baliabide eta estrategia daude. Esate baterako, munduko jolasak eta jolas kooperatiboak aukera egokiak dira kultura ezberdinetara hurbiltzeko eta aniztasuna modu positiboan onartzeko. Kulturartekotasun ikuspegi honek bere baitan hartzen du gure euskal kultura.

Euskara sustatzeko metodologia

Jakin badakigu, epe laburreko egitasmo honetan, euskarazko helburuak ezin direla bere osotasunean bete, horregatik, helburu txikiak lortzeari ekingo zaio.

Hortaz, egitasmo honetan, haurrak euskal giroan murgilduta egotea, euskarazko materialarekin jolasean aritzea eta eskolako ordutegitik kanpo ere, euskara komunikatzeko eta gozatzeko bidea izatea, lorpen handia izango da.

Lorpen hauek eskuratze aldera, ondorengo metodologia jarraitzea proposatzen dugu:

Hasteko, aipatu beharra dago, lanean arituko den hezitzailea, euskalduna izateaz gain, euskararekin sentsibilizatuta dagoena izango dela. Urtxintxa Eskolako hezitzailea izango den heinean, ikastaroetan, euskara sustatzeko estrategiak landu ditu eta euskara oinarritzko balio bezala landu du.

Erabiliko ditugun baliabide material guztiak euskarazkoak izango da: diskoak, jokoak, ipuinak, mahai-jolasak... Honekin batera, euskal kultura transmititzea da helburua, ez delako ahaztu behar, kultura baten adierazpen aipagarrienetako bat (eta ez bakarra) hizkuntza dela. Euskararekin jolastu, abestu, trufatu, haserretu, maitatu, ordenagailuetan murgildu eta batez ere goza dezakegula erakutsiko zaie gazteei.

Euskaraz zailtasunak dituzten haurrak, ugaritasunez erakartzen eta kutsatzen dira euskarara, errepikapenak erabiliz, keinuekin azalpenak emanez, euskaraz hitz egitera eta gozatzera gonbidatuz... Euskaraz hitz egiten dutenean ahalegin hori baloratu egiten da, akatsak egiten dituztenean, zuzendu beharrean lagundu egiten zaie, lotsatu ez daitezen eta konplexurik har ez dezaten.

Euskararen erabilera zeharka landuko da, hau da, haurrek euskara era oharkabean erabiltzea izango da gakoa. Horretarako, hezitzaileek euskal jolasak, euskal kantuek, euskarazko esamoldeak... erabiliko dituzte.

Egitasmo honetarako baliabide politak izango direla uste dugu. Ahozkotasuna lantzeko, esamolde jatorrak aukeratu eta ikasturtean zehar hauei erabilera ematea proposatzen da. Honen helburua, haurrek esamolde hauek ikasi eta erabiltzeko ohitura hartzea da, beti ere modu natural eta oharkabe batean. Hizkera informala garatzea oso garrantzitsu ikusten dugu, euskara eskolatik kanpo atera eta lagunarteko erabilera emateko.

HELDU BERRIAK EUSKARAZ MURGILTZEKO ESTRATEGIA PRAKTIKOAK

Adierazpenari dagokionez:

- Astiro hitz egin, ondo ahoskatuta.
- Keinuak erabili.
- Intonazioa markatu.
- Esaldi motzak erabili, mendekotasun gutxi.
- Galderak egin ulermena ziurtatzeko. Entzunez bakarrik ez da ikasten, ume guztiak ez dira esponjak bezalakoak.
- Errepikapenak erabili.
- Hizkuntza elkarrekintzan ikasi. Feedback-a garrantzitsua da.

Materialak eta edukiak:

- Ume bikienezko materialak ez erabili, errazak bai, baina adinari egokituak.
- Ezagutzak zentzua izan behar du (zerbait aurkitu, konpondu...). Motibazioa eta interesa piztea garrantzitsua.
- Hizkuntza tresna izango da, ez helburua.
- Irudiak erabili ulermena errazteko.
- Harrera egitean (paperak, oharak... banatzean adibidez), lehenetsi euskara (beltzez, marrazkiekin...)
- Egoera errealeak aztertu, errealitateari lotutako gaiak.
- Beraiei arrotzak ez zaizkien edukiak landu (Satorrari buruzko ipuin bat adibidez arrotza egingo zaio Saharar bati). Kontuan hartu beraien kulturako gauzak: animaliak, paisaia, jakiak...
- Garrantzitsua oinarritzko lau gaitasunak lantzea: ahoko eta idatziko ulermena, mintzamina eta idazmena.

Kulturartekotasuna gertatzea:

- Beraien hizkuntza lantzea garrantzitsua da, beraien hizkuntzari buruzko interesa erakustea.
- Beraien hizkuntzaren ezaugarriak ezagutzeta.
- Hizkuntza gutxitua darabilten biztanleekin enpatia landu.
- Kontuz tratatu desberdina ematearekin, astuna izan, bere gainean gehiegi egon, topikoetan jausi...
- Etxearen eta eskolaren (edo aisialdiko beste esparru baten) arteko arlo afektiboa landu gurasoekin.
- Kontuan hartu balitekeela etorkinak erraztasun handiagoa izatea hizkuntzak ikasteko, bat baino gehiago erabiltzen dituelako.

PROGRAMAZIO PROPOSAMENA

Proposamen honetan egitasmoaren nondik norako batzuk besterik ez dira aipatzen, proiektuaren dinamizatzaileak Urtxintxako langilearekin batera, programazioa guztiz zehaztuko duelarik, behin egitasmoa onartua dagoenean.

Aurtengo ikasturteko berrikuntza bezala, **MUNDUKO SUKALDARITZA**ren interesgunea izango dugu, ikasturte osoaren ardatz izango dena. Saio bakoitzean

ekarritako proposamenen bidez, saio bakoitzean landuko diren gaiak azalduko dira. Programazioan hauek izango dira, oro har, aurrera eramango diren jardueretako batzuk:

ZEHARKATUKO DIREN		LANDUKO DIREN	ERABILIKO DIREN
BALIOAK		GAIAK	TRESNAK
Euskara		Sukaldaritza	Errezetak
Kulturartekotasuna		Ingurumena	Jolasak
Parekidetasuna		Harreman eta jarrera osasuntsuak	Ipuinak
Aniztasun funtzionala		Gorputz adierazpena	Eskulanak
Parte-hartzea		Sormena	Tailerrak
Elkarlana		Irudimena	
		Higienea	

BALIABIDEAK:

Giza baliabideak

Azken urteetan bezala, Urtxintxa Eskolaren kulturartekotasun arduraduna den Itziar Villan izango da egitasmoaren koordinatzaile eta aholkularia.

Gazterren egitasmoko esku-hartze zuzenean jarduteko, aurreko urteetan proiektu honetan lanean aritu diren hezitzaileak lehenetsiko dira, euskaldunak, gernikarrak eta aisialdiko begirale titulua edo hezkuntzako titulazioak dituztenak, hain zuzen ere.

Urtxintxako koordinatzailearen funtzioa egitasmoaren ardura orokorra izatea izango da eta aldi berean, EISEarekin eta dinamizatzailearekin etengabeko harremana izatea. Bulegoko kudeaketa lanak bideratuko ditu, ebaluazioaren ardura izango du eta dinamizatzaileari jardura guztien prestaketan lagunduko dio.

Bestalde, dinamizatzaileak, programazioaren ardura izango du, gazteekin esku-hartze zuzena egingo du, etengabeko ebaluazioa egingo da taldearekin, eta abar. Azken finean, bera izango da egitasmoaren eta partaideen erreferentea.

Lan-taldearen lan-hizkuntza euskara izango da, bai ekintzak koordinatzeko eta programatzeko orduan eta bai parte-hartzaileekiko harremanetan.

Baliabide materialak

Urtxintxa Eskolaren bulegoa erabiliko da bulego lanak egiteko, kopiak ateratzeko eta abar. Ekintzetarako beharko den materialaz Urtxintxa Eskola arduratuko da.

EBALUAZIOA

Ebaluazioa, prozesu guztian zehar presente egongo den dinamika da. Hau da, ez da amaierako balorazioa eta memoria bakarrik egingo, egitasmoak dirauen bitartean, **etengabeko ebaluazioa** bideratuko da. Honela, aurretiaz zehaztutako estrategiek edo programazioek funtzionatzen ez badute, aldatzeko aukera izaten da, beste helburu batzuk markatzeko aukera ere izaten da eta prozesuaren nondik norakoak ikusita, erabaki ezberdinak har daitezke.

Hobekuntzak egiteko eta esperientziak elkartrukatzeko tresna paregabea da, eta helburuak lortzeko bidean, asko laguntzen du balorazioa sarritan egiteak. Ebaluazioaren bidez, gure lanaren bidean sor daitezkeen ezjakintasun eta zalantzak murrizt ditzakegu, jarritako esfortzu guztia ondo bideratua dagoen kontrola dezakegu, garatzen ari garen jardueren baliagarritasuna egiazta dezakegu, eta batez ere, etorkizunari begira zenbait neurri har ditzakegu, akatsak zuzenduz eta indar-guneak aprobetxatuz.

Ebaluazioan partaide eta eragile guztiek hartuko dute parte. Egitasmoan parte hartu duen orok izango du zerbait baloratzeko, eta oso garrantzitsua da denen ikuspuntua biltzea.

Martxan jarriko dugun ebaluazioak izango dituen ezaugarriei dagokienez, hauek azpimarratu nahiko genituzke:

□□ **Etengabekoa:** Burutuko den jarduera, osotasunean eta une ezberdinak kontuan izanik ebaluatu behar da. Honi esker, gure esku-hartzea egokituz joango gara, ebaluazioren bidez, behar ezberdinak detektatuz goazen heinean.

□□ **Parte-hartzailea:** Ebaluazioa, maila handiagoan edo txikiagoan jardueran parte hartzen duten pertsona guztiek egin behar dute. Horretarako, ebaluazio mekanismo ezberdinak jarriko ditugu martxan, ebaluazioa burutu behar duen agente motaren arabera.

□□ **Eraginkorra:** Gure esku-hartzea hasierako helburuetara eta parte-hartzaileen beharretara egokitua egon dadin, ebaluazioak, hobekuntzak sortzeko balio behar du.

Ebaluatzeko estrategiak:

- Saioz saiko ebaluazioa:

o Saio bakoitzaren amaieran, gazteekin ebaluazio dinamika bat egitea proposatzen da, jolasen bidez, haurren balorazioa jaso ahal izateko.

o Urtxintxako dinamizatzaileak haurren jarraipena egiteko fitxa bana beteko du saio bakoitzaren amaieran. Hartara, gazteen etengabeko ebaluazioa eta ebaluazio pertsonalizatua bermatuko da.

o Urtxintxako hezitzaileak Urtxintxako arduradunari saioan egindakoaren eta gertatutakoaren berri emango dio telefono edo mezu elektronik bidez.

- Programazioa berrikusteko bilerak:

o Dinamizatzailea behar den guztietan bilduko da Urtxintxako arduradunarekin, programazioaren inguruko zalantzak edo hobekuntzak argitzeko. Gutxienez, hiru hilabete behin.

- Ikasturte amaierako ebaluazioa:

o Gazteekin ikasturteko balorazio orokorra egingo du Urtxintxako hezitzaileak.

o Dinamizatzailea Urtxintxako arduradunarekin bilduko da ebaluazio orokorra egiteko.

o Urtxintxako arduradunak, gizarte hezitzailearekin batera, ebaluazio orokorra eta hurrengo urterako proposamenak egingo ditu.

o Urtxintxako arduradunak gizarte hezitzaileari txosten osatu bat bidaliko dio ikasturte amaieran.

Kontuan hartuko diren ebaluatzeko **irizpide orokorrak** honako hauek dira:

- ☐ Egitasmoaren egokitzapena jasotzaileen eta jendartearen beharretara.
- ☐ Helburuen lorpena eta partaideen asebetetzea.
- ☐ Parte-hartze eta inplikazio maila.
- ☐ Prozesuaren koordinazioa eta kudeaketa.
- ☐ Taldeen partaidetzaren kalitatea eta kopurua.
- ☐ Ekintza guztien gauzatzea.
- ☐ Zailtasunak eta lorpenak.
- ☐ Egitasmoak maila pertsonalean eta maila orokorrean egindako ekarpena.

KOORDINAZIOA

Urtxintxako hezitzaileak, proiektuaren arduradunarekin batera, eta *Gazterren* lokaleko jasotzaileen ezaugarriak kontuan izanik, haurren beharrek bat datorren programazioa zehaztuko du. Lan honetarako, jakina, aurreko ikasturtean azaldutako hobekuntzarako proposamenak kontuan hartuko dira, joan den ikasturtean atzemandako ahulguneak indartze asmoz.

Urtxintxako proiektuaren arduraduna eta dinamizatzailea etengabeko kontaktuan egongo dira, proiektuaren jarraitasuna bermatze aldera, betiere hobekuntzarako

proposamenak agertuz. Honez gain, EISEko hezitzailearekin ere, hartu-emanak bermatuko dela esan beharra dago. Urtxintxako hezitzaileak, berarekin batera lokalean egongo den gizarte hezitzailearekin etengabeko harremana izango du. Bestalde, Urtxintxako egitasmoaren arduraduna ere, gizarte hezitzailearekin harremanetan egongo da etengabeko ebaluazioa egite aldera.

AURREKONTUA Bi orduko 13 saio 1300€

*Hezitzailearen lana, materialak,
bidaiak eta kudeaketa lanak barne.*